

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAREN TXOSTENA ETA IRITZIA, EH BILDU TALDEAK AURKEZTURIKO “HIZKUNTZEN TRATAMENDUA HEZKUNTZA-SISTEMA EZ UNIBERTSITARIOAN” IZENeko LEGE PROPOSAMENARI BURUZ

Eusko Jaurlaritzaren xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 22.l) artikulua oinarri hartuta, dagokion txostena egin ohi du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Kasu honetan, ordea, aztergaia ez da Eusko Jaurlaritzaren beraren xedapen-proposamen edo lege proiektu bat, Eusko Legebiltzarreko talde baten lege proposamen bat baizik. Bestelako izaera du, beraz, txosten honek. Halere, oraingoan ere Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egoki eta beharrezko irizten du txostena egitea aipatutako lege-proposamenaren gainean, Eusko Jaurlaritzak duen iritzia finkatzerakoan kontuan hartu ahal izan dadin.

Izan ere, hala izan da iraganean (urrutira gabe, legealdi honetan bertan EH Bildu legebiltzar-taldeak berak aurkezturiko “Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei eta alorreko bete beharrei buruz aurkeztutako lege proposamenaren” gainean Eusko Jaurlaritzaren iritzia finkatzerakoan), eta hala izan behar da Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuan Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari jarritako eginkizunak betetzeko eta Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legearen 19.3 artikulua dioenaren ondorioetarako.

Lege-aurrekariak abiapuntuan

1979koa da Euskara irakaskuntza sisteman sartzeko lehenengo arau esanguratsua. Izan ere, 1979ko apirilaren 20ko 1049/79 Errege Dekretua da, euskara Euskadiko irakaskuntza sisteman sartzea arautzen duena.

Urte berekoa den Euskal Herriko Autonomia Estatutuak, euskararen eta gazteleraren ofizialtasuna aldarrikatzeaz gainera, xedatzen du Autonomia Erkidego osorako erakundeek *bi hizkuntza ofizialen ezagutzera segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituztela*.

1981. urtean Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketarako Sailak emandako zirkular batean deskribatzen dira lehenbiziko aldiz hezkuntza sistemarako hizkuntza-ereduak.

1982an azaroaren 28ko 10/1982 Euskararen erabilera normalizatzeko legea dator, eta II kapituluan xedatzen ditu hezkuntza sistemari dagozkionak.

1983an Euskal Herriko irakaskuntza ez-unibertsitarioan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duen 138/83 Dekretua dator, irakaskuntza ez unibertsitarioan euskararen erabilera A, B eta D eredu elebidunen arabera izango dela xedatzen duena.

1992an Eusko Jaurlaritzaren Curriculum Diseinuaren Dekretua dator, eta ikasleek garatu beharreko gaitasunen artean, honako hau zehazten du: “euskaraz eta gaztelaniaz ahoz nahiz idatziz adierazitako mezuak ulertu eta sortzea, komunikazio-asmo eta –testuinguru ezberdinetan”.

1993an Euskal Eskola Publikoaren Legea dator, hainbat kontu pisuzko arautzen dituen hizkuntza eredu eta hizkuntza kudeaketaren gainean.

Une hauetan, ikasketa ez unibertsitarioen arloan indarrean dagoen curriculum-araudi nagusia honako hau da, geroago argituko dugun bezala euskarari dagozkion arau-alderdiak gainerako gai kurrikular guztiekin integratzen dituen:

237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.

236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum (Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

23/2009 Dekretua, Batxilergoko curriculum ezarri eta Euskal Autonomia Erkidegoan jartzen duena (122/2010 eta 429/2013 Dekretuek aldatua).

32/2008 Dekretua, Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena (14/2016 Dekretuak aldatua).

83/2015 Dekretua, ekainaren 2koa, Ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketa Duala Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

86/2015 Dekretua, Oinarrizko Lanbide Heziketaren araubideari eta ezarpenari buruzkoa.

Oinarrizko iritzia

- **Aurkeztutako Lege Proposamena aintzat hartzearen aurkako iritzia adierazten du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Izan ere, uste dugu euskarak hezkuntzan izan behar duen trataera ez dela lege espezifikoko baten gaia izan behar, hau da, ez dela “euskara eta hezkuntzari” buruzko lege batean tratatu behar, baizik eta “hezkuntzari” buruzko legean.**

Euskararen sustapenean aurreratzen segitzeko eta euskarari transbertsalitatea sendotzeko modua ez da sektore bakoitzeko araudi espezifikotik kanpo euskarari buruzko lege bat eratzea, baizik eta euskararen gaia eta hizkuntza ofizialen trataera sektore bakoitzari buruzko legean bertan txertatzea.

Euskarak badu bere lege propioa, azaroaren 24ko 10/1982 Legea, euskararen erabilera normalizatzeak, eta oinarrizko lege horrek ezarritako printzipioak jasotzen eta aplikatzen dira gure Erkidegoko araubidea osatzen duten lege sektorialetan. Hori da euskarari, trataera sektoriala eman beharrean, zentralitatea emateak eskatzen duen bidea.

Hori izan da Eusko Jaurlaritzak eta Legebiltzarrak hiru hamarkada luzetan mantendu eta gauzatu duten printzipioa. Legealdi honetan bertan ere horren adibide zehatzak dira, esaterako, legealdian Legebiltzarrak onartu zuen lehenbiziko legea, 1/2013 Legea, Bizialdi Osorako Ikaskuntzari buruzkoa, edo gure erakunde antolamendurako hain

garrantzitsua den eta onartu berria den 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, non euskararen gaia araugai orokorrean erabat txertatua baitago. Adibide batzuk baino ez dira, gehiago ere aipa baitaitezke.

Arlo bat osotasunean hartuta arautzen duen lege eta araubide espezifikoan txertatua ez baizik “alboko” lege baten aztertua izateak ez du euskararen zentralitatea sendotzen, ez du hizkuntza-trataerak gure gizartearen jardura arlo desberdinetan izan behar duen transbertsalitatea garatzen. Bestela esanda, euskararen eta hizkuntzen gaia arloko lege nagusitik bereizita planteatzeak, alboko gai bihurtuko luke euskara, baina erdigunean behar dugu euskara, ez ertzean.

Horregatik, Eusko Jaurlaritzaren iritziz, euskararen gaiak txertatua egon behar du Hezkuntza Sistemari buruzko legean bertan. Hala dago gaur egun (ikus Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legea), eta halaxe dago planteaturik hezkuntza sistema berritzeko hezkuntza-eragile nagusiekin batera lantzen ari den Heziberri proiektuan, non euskararen gaia eta hizkuntzen trataera integrala jaso dagoen, bai oinarri pedagogikoetan eta bai curriculum dekretuetan, eta, halaber, halaxe jasotzea aurreikusten da hezkuntzari buruzko lege berriaren oinarrietan.

Zehazki, Oinarrizko hezkuntzako curriculum propioa ezartzen duen 236/2015 Dekretuak eta Haur hezkuntzako curriculum propioa ezartzen duen 237/2015 Dekretuak derrigorrezko irakaskuntza amaitu arteko ikastaldian ikasleek bereganatu beharreko kompetentziak definitzen dituzte, horien artean komunikatzeko kompetentzia eta hizkuntza gaitasuna daudelarik. Eta horiek ahalbidetzeko, “hizkuntzen trataera integratua eta integrala” ezartzea eta, “bi hizkuntza ofizialen erabilera sozial desorekatua konpentsatzeko, euskararentzako lehentasunezko tratua bermatzea” xedatzen dute. Era berean, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak iragarri duen bezala, Heziberri programaren hurrengo egitasmoa Hezkuntza Lege berria egitea eta onartzea da, euskararen trataera heziketa sisteman hobetzen jarraitzeko bitarteko egokiena hezkuntzaren arloko legea bera delakoan, euskara gaitasuna gainerako kompetentziekin batera arautu dadin. Hori da, hain zuzen ere, euskararen trataera hezkuntzan itsasteko bitarteko eta testuinguru egokia.

Beraz, ez da bidezkoa euskararen gaia hezkuntzan tratatzeko lege espezifiko bat planteatzea, baizik eta hezkuntza legean bertan behar da txertatu.

Beste irizpide gehigarri batzuk

Esandakoa bera bakarrik bada nahikoa arrazoi esku artean dugun Lege Proposamena aintzat hartzearen aurkako iritzia emateko. Halere, gaiaren garrantziaz eta Lege Proposamenaren edukiarenaz jabetuta, eta Lege Proposamenaren adierazten diren zenbait kezka partekatzen ditugularik, eta, argi eta garbi esanda, uste dugulako behar-beharrezkoa dugula ikasleen euskara-gaitasuna areagotu eta sendotzeko gure hezkuntza sisteman hobekuntzak egiten jarraitzea, aurkeztu den lege proposamenaren artikulua zehazketan sartu gabe (ez baita hori txosten honen egitekoa), eta arestian aipaturiko funtsezko irizpide nagusiaz gainera, badira testuan bertan proposamena aintzat ez hartzea gomendatzen duten hainbat arrazoibide garrantzitsu ere. Laburbilduta, honako hauek:

- **Lege proposamenak hizkuntza ereduak gaitzesten ditu eta “murgiltze eredu” edo “hizkuntza murgiltze eredu” planteatzen du.**

Bada beste ezer baino lehen hasiera beretik argitzea komeni den kontzeptu bat, “hizkuntza murgiltze eredu” kontzeptua hain zuzen ere. EAEko hezkuntza sistema ez unibertsitario arautuari bagagozkio, lanbide heziketan salbu, bistan da ikasle gehienak “hizkuntza murgiltze eredu” ari direla, murgiltze partzalean (B eredu) edo osoan (D eredu). Izan ere, 2014/2015 ikasturtean, sistema ez unibertsitarioan batez beste ikasleen % 65,4 D eredu, % 19,1 B eredu eta 15,6 A eredu aritu baitira, etxetik euskaldun diren ikasleak lautik bat baino ez direnean. Zenbait ikasmailatan (derrigorrezko hezkuntza, esaterako) are handiagoak dira D ereduaren portzentajeak. Hortaz, gure iritzian, EH Bilduren lege proposamenean aurreikusten den “hizkuntza murgiltze eredu” hobeto izendaturik legoke honela: “guztientzako erabateko hizkuntza murgiltze eredu”. Hori baita, bistan denez, proposatzen duena.

Honek orain arteko sistemarekin hausten du, eta, zioen azalpenean adierazi bezala, gurearengandik oso urrun dagoen errealitate soziolinguistiko batean (Katalunia) aplikatua den sistema bat mimetikoki ekarri nahi du gure hezkuntza sistemara. Esan beharra dago, ordea, hizkuntza eredu sistemak, batetik, euskara hezkuntza sisteman ezartzeko bide eraginkorra eskaini duela, eta, bestetik, ezarpen erabat bare eta baketsua izan duela, gurasoen hautuan oinarritu baita, ez derrigortzean. Eta, euskal gizarteak, bereziki gurasoek, guraso euskaldunek eta ez euskaldunek, denek, euskararen alde egindako hautuak ekarri gaitu gaurko egoerara, non erabat nagusi diren euskarazko ereduak, batik bat D eredu, hain zuzen ere, irakaskuntza nagusiki euskaraz den eredu. Gizartearen babesari eta hezkuntza komunitatearen (guraso eta irakasleen) nahiz herri-aginteen ahaleginari zor zaie 1983-1984ko ikasturteetik gaur egunera euskaraz duela hogeita hamar urte nagusiki eraldun elebakarra zen hezkuntza sisteman egin duen ibilbide ikaragarria.

Gure egoera soziolinguistikoan, lege proposamenak planteatzen duen bezala guztientzako erabateko murgiltze eredu lege orokortzea ikasle guztien euskara gaitasunaren hobekuntza efektu mirakuluzkoak izango lituzkeelakoan -eta ez hezkuntza osoa baizik eta euskararen trataera bakarrik aztertzen duen lege baten bidez orokortzea- hiru hamarkada hauetan izan den adostasuna airean edo neurri batean kolokan jartzea ekarri lezake, eta horrek, halaber, ondorio kaltegarriak bakarrik ekar diezazkioke euskarari. Adostasun sozialean, bereziki hezkuntza eta hizkuntza kontuetan, aurrera egin behar da, inoiz ez atzera. Elkarbizitzak ez ezik, eraginkortasunak berak ere hala eskatzen duela uste dugu.

- **Lege proposamenean hizkuntza eredu buruz egiten diren adierazpenak ez dira zuzenak.**

Hizkuntza ereduak erabat zaharkituta geratu direla, ez dutela hasierako helburua betetzen, albo kalteak ekarri dituztela eta deuseztatu egin behar direla esaten du testuak. Ez du, ordea, benetako errealitatea islatzen, ahaztu egiten baitu hizkuntza eredu sistema malgua dela eta bilakaera eta eraldaketa handia izan duela urte hauetan guztietan. Edonorentzat ezaguna da gaur egun nekez hitz egin litekeela A eredu eredu bakar eta homoginoa edo B eredu eredu bakar eta uniforme balira bezala. Lege proposamenean aditza ematen den interpretazio zurrundetik urrun, jada askotarikoa da hizkuntza eredu aplikazioa, ikastetxeen malgutasunari esker.

Alde batetik, gogorarazi behar da gurasoen borondatez –eta irakasleriaren ahaleginari eta irakasleen hizkuntza prestakuntzarako nahiz ikasmaterialeen sorkuntzarako

hezkuntza administrazioak emandako babes iraunkorrari esker-, D ereduak izan duen hedadura iraunkorra, lehen hizkuntza euskara duten haur eta gazteengana ez ezik, jatorriz familia euskaldunen seme-alabak ez diren milaka eta milaka ume eta gazterengana iritsi delarik. Bestetik, gogorarazi behar da, baita ere, gaur egun ezin daitekeela hitz egin B eredu bakarraz. B eredu asko daude, tokian tokiko egoera soziolinguistikora eta eskola proiektura egokituak; bilakaera horretan, B ereduan euskararen trataera eta erabilera sustatzen eta zabaltzen ari dira era progresiboan. Eta esan beharra dago A eredu ere ez dela bakarra eta ez dela era zurrunean hartu behar, araubideak berak aurreikusten eta ahalbidetzen baitu A ereduan ere euskara irakas-hizkuntza gisa sartzeara, umeek hizkuntza gaitasunean aurrera egin ahala; eta azken urteotan hainbat esperientzia daude A ereduan euskara irakas-hizkuntza gisa ere, neurri batean edo bestean, txertatzeko.

Argi esana gera bedi, beraz, gaur egun nekez hitz egin litekeela A eredu bakarra eta homogeneoa balitz bezala, are gutxiago B eredu bakarra eta uniforme balitz bezala, lege proposamenak besterik irudikatzen badu ere; lege proposamenean aditzera ematen den interpretazio zurrunetik urrun, jada askotarikoa baita hizkuntza ereduaren aplikazioa. Hizkuntza ereduaren sistema ez da sistema itxia eta zurruna, bilakatzen ari da eta bilakatzen eta hobetzen jarraitu dezake eta jarraitu behar luke, unean uneko emaitzak, beharrak, borondateak eta aukerak baliatuz.

- **Eskolari eska dakioke –eta eska bekio- eman dezakeena, baina alferrik da eman ezin dezakeena eskatzea.**

Testuan aitortzen da eskolak bakarrik ezin berreskura dezakeela euskara, eta aitortzen da, baita ere, euskara biziberritzeko, eskola ez dela nahikoa baina bai ezinbestekoa. Behin baino gehiagotan esan izan dugunez, guztiz bat gatoz kontsiderazio horrekin. Baina horrek, hain zuzen ere, eraman behar gaitu ondorio zuzenak ateratzera eta eskolari helburu egingarriak jartzera. Azken urteotan egin diren ikerketek erakusten dutelako ikasleen euskara gaitasunean, eta batez ere adinean zertxobait aurrera egin ahala, eragin handiagoa dutela familiaren hizkuntza tipologiak eta ingurune soziolinguistikoak (hurbileko eta lagunarteko eta eskolaz kanpoko jardueratako mintza-jardunak) hizkuntza ereduak berak baino. Alegia, eskuarki, ezin dela espero hizkuntza gaitasun berbera eskuratzea bi ikaslek, biak ere D ereduak izan arren, bata familia eta ingurune sozial euskaldunekoa bada eta bestea familia erdaldunekoa eta euskara ahul den ingurune soziolinguistikokoa bada. Beraz, ezin daiteke euskara gaitasunaren gaia bakarrik lotu eskolako hizkuntza ereduarekin, gurea bezalako egoera soziolinguistiko konplexu batean faktore askok eragiten baitute, eskolaz gainera, hiltunen gaitasunean. Eskolaren ekarria garrantzi betekoa da, baina mugatua, ez da ahalguztiduna.

Eskolak asko eman dio euskarari, gehiago eman diezaioke eta gehiago eman behar dio. Hobetu daiteke ikasleek eskuratzen duten euskarako gaitasuna. Etengabeko erronka dugu hori eta, horregatik, Eusko Jaurlaritzaren helburua bada, noski, ikasleen euskara gaitasuna hobetzen jarraitzea hezkuntza sistemaren bitartez ere. Horren froga dira hainbat arlotan (irakasleen formazioan, material eta metodo didaktikoen hobekuntzan, eskola jarduera orokorrean eta eskola ingurunean euskarak duen presentzia eta erabilera sustatzen, ikastetxeen hizkuntza proiektuak eta hobekuntza proiektuak arautzen, B eredu Batxilerrean eta Lanbide Heziketan ezartzen eta hedatzen, A ereduan euskarazko irakaskuntzari lekua zabaltzen, eta abar) ematen ari garen pausu zehatzak. Baina betiere, errealitate sozialarekin uztartuta, guztiz antzua baita eskolaren errealitatea eta eskolaren helburuak dugun egoera soziolinguistikotik bereizita hartzea, helburu aurreratuak baina egingarriak ezarri nahi baditugu. Eskola ez baita irla bat gizartean. Horregatik, bada,

eskolari ezarri behar zaizkio bete ditzakeen helburuak, helburu aurreragarriak zalantzarik gabe, eta ezin zaizkio gaineratu beste gizarte arlo, jarduera, egoera eta bitartekoei dagozkien helburuak.

Hezkuntza sisteman ikasleek euskara-gaitasun aurreratu eta sendoagoa eskura dezaten urratu behar den bidea egiteko iparrorratz egokia osatzen dutela uste dugu Euskararen Aholku Batzordeak aurtengo maiatzean onartu duen “Eta hemendik aurrera zer?” dokumentuan jasotzen diren irizpideek (ikus “9.3.1.1.- Euskara gaitasun erlatiboa: hezkuntza-sistemaren optimizazio linguistikoa” azpi-atala).

- **Ez da zuzena Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Kartari buruz testuak planteatzen duena.**

Lege proposamenak dio Europako Kartaren zortzigarren artikulua xedatzen duela “lehen eta bigarren hezkuntzan, lanbide heziketan eta unibertsitatean irakaskuntza hizkuntza gutxituan antolatu behar dela”. Europako Kartak 8.1. artikuluko a), b), c), d) eta e) puntuetan dioena da, “aurreikusi” egin behar dela eskolaurre, lehen maila, bigarren maila, lanbide heziketa eta unibertsitate irakaskuntza “hizkuntza eskualdeko edo txikian” izatea, hau da, “bermatu” egin behar dela aukera hori. Baina irakaskuntza “bakarrik” hizkuntza gutxituan izan behar dela ez du Hizkuntzen Europako Kartak inon esaten. Ikasmaila guztietan euskarazko irakaskuntzaren aukera eskura izatea da Europako Kartak ezartzen duen betebeharra: gurera etorrira, D ereduaren eskaintza bermatzea, alegia, baina ez nahitaez hura bakarrik. Euskadiko Autonomia Erkidegoan dugun hezkuntza sistemak, euskarari dagokionez, erabat betetzen du Europako Kartak dioena, eta halaxe aitortua eta azpimarratua izan da Kartaren betetze-mailari buruz Adituen Batzordeak egin eta Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak onarturiko txosten guztietan, lanbide heziketan hobekuntzak egin beharra gomendatu dutelarik (ikus Eskualde eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Karta –EAO, 2001eko irailak 15-, eta ebaluazio txostenak, azkena 2016ko urtarrilaren 20koa).

- **Ez da egokia hezkuntzaren hizkuntza-helburuak definitzeko Hizkuntzen Europako Markoa erreferente bakartzat hartzea.**

Lege proposamenak xedatzen du Europako Markoaren B2 maila jartzea, euskaraz eta gaztelaniaz, derrigorrezko eskolaldiaren amaierarako. Hizkuntzen Europako Markoa, ordea, ez dago pentsatua eskola sistemekin, irakaskuntza sistemekin. Europako Markoaren gaia L2 edo bigarren hizkuntzen irakaskuntza da, eta pertsona helduei zuzenduta dago. Europako Markoa zuzendua dago europarrek bigarren hizkuntza bat (bereziki atzerrikoa) ikasteko prozesuak sustatzera eta definitzera, hizkuntza bera ikasteko prozesuetara, alegia. Ez dago zuzendua hezkuntza sistema baten barruan “irakas-hizkuntza” diren hizkuntzen ikas-prozesuetara. Horregatik, Europako Markoan dauden mailaz mailako gaitasun helburuak, batez ere aurreratuak, definitzerakoan funtsezkoa da hiztunaren heldutasuna eta komunikazio gaitasuna. Eta horregatik, ez dago helduentzat landuta eta definituta dauden helburu eta eginkizun komunikatiboak zuzenean aplikatzerik derrigorrezko eskolaldiko adinean dauden gaztetxoei.

Are gehiago, Europako Markoaren erreferente implizituak hizkuntza normalizatuak dira, European nagusi diren hizkuntzak (ingelesa, frantsesa, alemana, gaztelania...), ez eremu urriko edo eskualdeetako hizkuntzak. Horregatik, jokabide erratua da Europako Markoaren definizioak eta helburuak, gure egoera soziolinguistikoa kontuan hartu gabe, helduen mundutik ume eta gazteen mundura bere horretan ekartzea, hizkuntza nagusien parametroak euskararen egoerara zuzenean aplikatzea. Gauza bat da Europako Markoa

erreferentziatzen hartzea, eta besterik da, okerrekoa gure ustez, lege proposamenak egiten duen bezala, hezkuntza ez unibertsitarioko hizkuntza gaitasunen definizioa aipaturiko Markora bakarrik errenditzea.

- **Lege-proposamenak talka egin dezake azaroaren 28ko 10/1982 Euskararen Legearekin.**

Aztergai dugun lege-proposamenak, bere helburuei jarraiki normala denez, xedapen gehigarrien eskutik Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen hainbat artikulua aldatzen ditu, eta Xedapen Indargabetzailearen bidez aipaturiko lege horretako hainbat artikulua eta 10. xedapen gehigarria, eta baita ere zenbait dekretu indargabetzen ditu. Ez dio, ordea, erreferentziarik egiten euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeari, eta, gure ustez, Lege Proposamenean finkaturiko sistemak talka egin dezake aipaturiko 10/1982 Legeko hainbat aurreikuspenekin –zehazki eta bereziki, Legearen II. kapituluaren jasotako zenbaitekin–.

Euskararen Legea da euskararen erabilera normalizatzeko araudi sektorial guztientzako enborra, eta euskara sustatzeko politiken oinarrian dagoen zutoin adostua. Ez da, noski, aldaezina, Eusko Legebiltzarrak zilegitasuna du, hala kontsideratuko balu, nahi beste aldagata egiteko. Baina, euskararen sustapen politiken bizkarrezurra izanik, haren edozein aldagata argiro eta zuzenean egin behar dela uste dugu, ez zeharbidez, are gutxiago aipatzeke. Eta, gainera, Euskararen Legea euskara biziberritzeko gizarte honek egin duen eta egiten jarraitu behar duen ahalegin partekatua ahalbidetu duen adostasun sozial eta politikoaren fruitu denez, berorren balizko aldagata funtsezkoek adostasun ahalik eta zabalena behar dute ezinbestez oinarrian, adostasun hori urregorria baita gizarte-bizikidetzarako eta euskara biziberritzen eraginkortasunez jarraitzeko. Adostasun hori, horrexegatik, areagotu eta indarberritu bai, baina murriztu gabe gorde behar genuke denon artean.

Esandako guztiagatik, bada, “Hizkuntzen tratamendua hezkuntza-sistema ez unibertsitarioan” izeneko Lege Proposamena aintzat hartzearen aurkako iritzia da gurea.

2016ko ekainaren 11

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDE'TZA

Patxi Baztarrika Galparsoro, sailburuordea